

## Donostiako udalerrian berotegi efektua eragiten duten gasen (BEG) inbentarioa aztertzeko txostena, 2018. urteari dagokiona.


### 2018. urteko isuriak

2018an, BEG isuriak 850.428 tona CO2 baliokide izan ziren gure udalerrian; hau da, 4,6 tona CO2 baliokide biztanleko.

<b>Isuriak, guztira:</b>	<b>850.428 t CO2e</b>
<b>Isuriak biztanleko:</b>	<b>4,6 t CO2e / bizt</b>

### Sektorearen arabera


Isurien erdia baino gehiago garraioari dagokio (% 56,9); atzetik, baina urruti, zerbitzuen sektorea dator (% 17,9) eta, ondoren, etxebizitzena (% 17,4). Udalerriko hondakinen kudeaketak isuri guztien % 7,3 sortzen du; lehen sektorea ez da % 1era iristen.



Isurien jatorriari dagokionez, gehienak (% 80) 1. irismeneko igorpenak dira (zuzeneko igorpenak), hau da, erregaiak erretzeak sortzen dituenak (berokuntzan, ibilgailuetan eta abarretan).

Isurien % 15 bigarren irismeneko emisioak dira, hau da, kontsumitzen dugun energia elektrikoa sortzeko sortutako zeharkako emisioak. Emisio horiek, neurri handi batean, Estatuan iturri berriztagarrietatik sortzen den elektrizitatearen ehunekoaren arabekoak dira.

Azkenik, % 5 hirugarren irismeneko isuriak izeneko isuriak dira (zeharkako beste isuri batzuk); horietan sartzen dira udalerriko hondakinen kudeaketarekin lotutako isuriak.




### Bilakaera aurreko urteekiko.

2017. urteko isurien aldean, 2018an guztizko isuriak % 0,7 jaitsi dira, eta biztanleko emisioak % 0,8. Hala ere, 2018ko isuriak 2016 urtekoak baino % 5 handiagoak dira.

	2016	2017	2018
<b>Isuriak, guztira (t CO2e):</b>	<b>808.830</b>	<b>856.048</b>	<b>850.428</b>
<b>Isuriak biztanleko (t CO2e / bizt):</b>	<b>4,4</b>	<b>4,6</b>	<b>4,6</b>
<b>Aurreko urtearekiko bilakaera:</b>		<b>+ 5,8 %</b>	<b>- 0,7 %</b>

Azken hiru urtetako bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuan izan denaren antzekoa izan da; izan ere, horien inbentarioek ere hazkunde nabarmena izan zuten 2017an, eta behera egin zuten 2018an.

Bilakaera, sektorearen arabera, honako hau izan da:






	2016 (t CO2e)	2017 (t CO2e)	2018 (t CO2e)	Igoera 2018an 2017. urtearekiko
<b>Garraioa</b>	<b>481.030</b>	<b>484.317</b>	<b>484.046</b>	<b>- 0,06 %</b>
<b>Etxebizitzen sektorea</b>	<b>123.586</b>	<b>141.930</b>	<b>147.753</b>	<b>+ 4,1 %</b>
<b>Zerbitzuen sektorea</b>	<b>139.285</b>	<b>163.193</b>	<b>152.153</b>	<b>- 6,8 %</b>
<b>Hondakinak</b>	<b>60.138</b>	<b>61.838</b>	<b>61.721</b>	<b>- 0,2 %</b>
<b>Abeltzaintza</b>	<b>4.792</b>	<b>4.771</b>	<b>4.755</b>	<b>- 0,3 %</b>

## Garraioa

Sektore honetako isuriak udalerriko isuri guztien % 56,9 dira. Garraioari egotz dakizkiokeen isurietatik, % 63 autoek eragindakoak dira; % 28,5, kamioi eta furgonetek eragindakoak dira, eta % 6,7 autobusek.

2018an, garraioaren isuriak % 0,6 murriztu dira 2017ko datuekin alderatuta, turismoen isurien jaitsierari esker; izan ere, gainerako ibilgailu-kategoriak pixka bat igo dira.

Jaitsiera txiki horren eraginez aldaketa antzeman da azken urteetako joeran, garraioaren emisioak urtez urte handitu baitziren 2013 eta 2017 bitartean.



## Zerbitzuak

Hirian pisu handia duen sektore honek isuri guztien % 17,9 sortzen du. Isuri horien ia bi heren elektrizitatearen kontsumoari lotuta daude, eta gainerako herena berokuntzarako erabiltzen diren gas naturala, gasolioa eta petrolioaren beste deribatu batzuen kontsumoari dagokio.

2018an, sektore horren isuriak ia %7 murriztu dira, nahiz eta elektrizitate, eta gas natural eta gasolioaren kontsumoak gora egin duten. Isuriak murriztearen arrazoia izan da 2018ko elektrizitatearen emisio faktorea 2017koa baino askoz txikiagoa izan dela.



Emisio faktore hori estatu mailan erregai fosiletatik sortzen den elektrizitatearen ehunekoaren arabera da, iturri berriztagarrietatik edo zentral nuklearretan sortzen den elektrizitatearekiko. 2018an, erregai fosiletatik sortutako elektrizitatearen ehunekoa jaitsi egin zen, eta, beraz, kontsumitutako elektrizitate kWh bakoitzari CO<sub>2</sub> baliokide gutxiago esleitzen zaio.

### Etxebizitzak

Etxebizitza sektorearen garrantzi erlatiboa handitu egin da azken urtean: isurien % 17,4 izatera pasatu da, zerbitzuen sektorearen ia ehuneko bera. Isurien % 40 elektrizitate-kontsumoari lotuta dago, eta % 60 gas naturala, gasolioa eta petrolioaren beste deribatu batzuk erretzeari.

2017. urtearekiko, etxebizitza sektorearen isuriak % 4 igo dira, berokuntzarako erregaien kontsumoa handitu egin delako. Etxebizitza sektoreko elektrizitatearen kontsumoa pixka bat jaitsi da.

### Hondakinak

Hirian sortutako hondakinen kudeaketak isuri guztien % 7,3 sortzen du.

2018an, gaika bildutako hondakinen kopurua % 3,7 hazi zen 2017koaren aldean, eta batera bildutako hondakinak (herritarrek sailkatu gabeak) % 0,28 jaitsi ziren. Bateran bildutako hondakinen kudeaketak sortzen ditu BEGen isuri gehien; beraz, kopuru horiek, guztira, hondakinen kudeaketarekin lotutako isurien % 0,2 murriztea ekarri dute.

### Lehen sektorea

Lehen sektoreak pisu txikia du hirian eta, hortaz, BEGn isuri gutxi sortzen ditu: isuri guztien % 1 baino gutxiago. 2018an, sektore honetako isuriak % 0,3 jaitsi dira.

### Isurien bilakaera, hiriak duen helburuarekin alderatua

2007-2016 urteetan bilakaera ona izan den arren, 2017an isuriak asko igo ziren, eta 2018an beherakada txikiagoa izan da. Hori dela eta, 2020rako % 20 murrizteko helburua lortzeko balio desiragarrien gainetik gaude.

